BARREN
1998ko azaroaren 27a
V. urtea 258. zkia
ELGOIBARKO ASTEKARIA

**ZENBAT BURU**
iñaki **Jaio**

**ERREPORTAIA**
**Ongizate Saileko etxe etxelco zerbitzu soziala**

**GEHIGARRI BEREZIA**
**Negua,** bero-bero

**KULTURA**
**Tinieblas Gonlez eta Begoña del Teso, abenduaren 3ko zine klubean**

**GAZTAROA**
*Arima Beltza,* **blues talde elgoibartarra**

Nazioarteko 8. Xake Txapelketa

# Jumnen a gerTITIT TT2')'a






"Xakea bizitza bezalakoa da, taula mundua da eta piezak biztanleak" Elizbar Ubiiava



Gona + Jertsea 13,500 Pta.
Jaka 9.800 Pta.



Praka 10.200 Pta,
Jaka 23.900 Pta.



Traje beltza 35,300 Pta.
Jaka 25.900 Pta.



Abrigoa 28.975 Pta.
Praka 6.900 Pta,



Praka 10.200 Pta. Alkondara 8.900 Pta.
Gerrikoak 2.950 Pta. Poltsa 5.950 Pta.



Puntozko konjuntoa 18.900 Pta.
Kazadora 8.500 Pta.



Bufanda 3.975 Pta. Poltsa 6.900 Pta.
Foulard-a 3.900 Pta.

Orain larunbat arratsaldez ere irekita

# Sara

Ei4c44kzo, /4 • Td: /43 74 3S SS





IÑAKI JAIO

Atal hau ez da BARRENen editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

# Azaroak 27

Bizitzaren paradojak direla-eta, zuek idatzi hau irakurriko duzuen egunean, kasualitatez edo, beharbada, halexe izan behar zuelako, hamalau urte bete ditugu kartzelan Inaxio Iriondok, MikeI Alberdik eta hirurok. Beraz, ezinbestean kartzelaz idatzi behar nuela ikusi dut, hamalau urte hauetan gertatutakoa eta bizi izandakoa orrialde bakarrean laburtzea zaila bada ere.

Espetxeekin kontaktu txikiena izan duen edonorentzat, indefentsioa eta inpotentzia dira sentimendu nagusiak. Zurrum urru ak, garrasiak, ateen eta zerrailen zaratak, isolamenduaren isiltasun beldurgarria, ... horiek dira hemengo hots bakarrak. Kartzelako hormigoia, hesiak, alanbradak, ateak, kabinak, lokutorioak eta kristalak, denak hotzak dira, eta hauen guztien helburua familia eta gizartearen berotasuna eta komunikazioa oztopatzea da.

**"Hartzelake hormigoia, hesiak, alanbradak, ateak, kabinak, lokutorioak eta kristalak, denak hotzak dira, eta hauen guztlen helburua tamilla eta gizartearen berotasuna eta komunikazioa oztopatzea da"**

Harresiek barruan gertatzen dena izkutatu nahi dute, eta hemengo ugabazek, egiten dutenaz konsziente izanda, dena kontrolpean dute, inork euren legitimitatea eta autoritatea zalantzan jarriko ez duela badakitelako, hortxe jarri dituzten agintariek ere ez dute duda izpirik izango, agintea euren artean banatzen dutelako.

Harresiak, zigor aginduen eta katxeoen harresiak; arbitraltasuna, irain eta umilazioen harresiak; biluzketa, intimitatearen bortxaketa eta araketen harresiak.

Hala ere, zapalketa eta eragozpen guztien gainetik, hemen barruan bizitza dago, bere mundua hankaz gora ikusten duten pertsonak, eta amore eman gabe euren bizimodua, baloreak eta sentimenduak eraikitzen dituzten gizakiak.

Elkarrekin bizi gara gure egoera, beharrak eta itxaropenak berberak direlako. Baina, horrez gain, euskal preso politikoen kasuan konplizitateak, poztasunak, kezkak eta arazoak elkarrekin bizi ditugu eta, batez ere, gure herriaren zapalketaren aurrean dugun askatasun beharra. Helburu horrek bizirik irauten laguntzen digu jazarpen baldintza ez gizatiar, isolamendu, eraso, txantaia eta presio guztien gainetik.

Bizirik irauten dugu euskal preso politiko bezala dugun duintasuna harresi eta kartzeleroen gainetik dagoelako. Gure sentimendu, itxaropen, amets, konpromezu eta ekintzen jabe gara eta hori inork ezin digu kendu.



# Ba RREN

Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
le 943 74 41 12
Publizitatea:
11 943 74 37 04
Faxl: 943 74 37 04
E-maila: barren@topaguneajalgi.com

ARGITARATZAILEA Ergoibarko Izarra
LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala
ZUZENDARIA Ainhoa Lodoso
KAZETARIAK Ainhoa Lodoso, Jasone Osoro
PUBLIZITATEA Miren Moreno
MAKETATZAILEA Bea Ansola
ADMINISTRAZIOA Amaia Martin
GERENTZIA Rafa Alvarez, M. Angeles Orluoste.
KOLABORATZAILEAK Irati Agirreazaldegi, Ana Artetxe, Jose Mari Bastida, Mari Karmen Elorza, Maider Elustondo, Jon Eugi, Koldo Galdona, Aintzane Garate, Jon Garate, Juanito Gorostiza, Arnaitz Gorriti, Alberto Iriondo, Iñaki Jaio, KOKOE, Imanol Larrañaga, Nieves loiola, Ongarri Zne Kluba, Asier Orbea, Julian Segundo, Jon Suarez, Anjel Ugarteburu, lban Urizar, Miren Vallejo.
BANAKETA ARDURADUNA Imanol Larrañaga
INPRIMATEGIA Gertu Koop. E.
TIRADA 4.000 ale
LEGE GORDAILUA SS-1.0313/92
ISSN 1139-1855

*Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.*



fundazioa
fundaci6n

1ADANOBAT

£-GOITI
GRUPO DANOBAT


## Kaixo:

Nire izena Alberto Cruzalegui da eta 39 urteko peruarra naiz. Bizitza osoan entzun izan dut nire familiaren jatorria Elgoibar dela. Itxura denez, joan den mendearen buakera aldera nire birraitona, Jose Cruzalegui, Elgoibartik Amerikarantz abiatu zen. Peruko ipar aldetik barrena, Lima hirian finkatu zen. Josek hiru seme izan zituen: Alberto (nire aitona), Augusto (Peruko irrati esataria 40-60 hamarkaden bitartean) eta Agustin. Albertok seme bakarra izan zuen, nire aita, Victor.

Nire familiarien edo abizenaren arrastoren bat topatu nahi nuke. Perun bizi garenak enbor berekoak gara eta apenas daukagun informaziorik. Posta elektroniko bidez informazioa jasotzea gustatuko litzaidake. Nire helbidea (kwaeala@fz.ml.org) da. Agian, zuek lagun diezadakezue.

Agur bat eta eskerrik asko

**Alberto Cruzalegui**

## Inatu txarren aurkako eguna

Haizea Emakume Taldeak, asteazkenean ospatu zen Nazioarteko Tratu Txarren Aurkako eguna dela-eta, zera plazaratu nahi du:

Emakumeok tratu txarrak salatu behar ditugu eta egoera honetan dagoen emakumeak laguntza eskatu behar du. Era berean, emakumeei tratu txarrak sufriarazten dizkieten gizonezkoek jakin behar dute, euren jokabidea okerreko heziketa jaso izanaren ondorioa dela. Jokabide hau aldatzeko tratamendu berezia jasotzea beharrezkoa da. Emakumeak ezin du isilik eta gizonaren menpe bizi. Kexatzearekin ez da nahikoa. Antsietatea eta angustia gainditu egin behar dira. Emakumeak bere buruaz duen kontzeptu negatiboa baztertu egin behar du.

Tratu txarrak eragiten dituenaren ustetan, bortxakeria justifikatua dago bere `boterea' mantentzeko. Emakume askok isiltasunean onartzen dute egoera hau, askotan lotsarengatik edo besteek `esango dutenaren' beldurrarengatik. Beste askotan menpekotasun ekonomikoarengatik edo familiako baten ahotan `ez da horrenbesterako izango' edo `rnerezi duzulako izango da' eta antzerakoak entzuten direlako onartzen da. Gizarteak ezarri digun 'biktima' papera baztertu egin behar dugu, gure buruari balio handiagoa emanez.

**Haizea Emakume Taldea**

## Pazienttia clorIzen ari zaigau

***lAurte,*** 5.110 egun, 122.640 orꞏeta oraindik dispertsaturik darraite, etsaiaren gartzeletan, bizardun belaffi-handiaren esku, gartzelero-torturatzaileen menpe... Gaur egun, azken urteotan bezalaxe, Mikel, Iñaxio eta Iñakirentzat ez dago legerik. Beraientzat espainiar legeak ez du balio, Konstituzioak ere ez du balio. Euskal presoentzat balio duen lege bakarra torturatzaileena da: palizak, irainak, familiei mesprezuak,...

Horrelaxe heldu gara 1998ko azarora, askorentzat 'une historikoa' den honetara (maiz entzuten ari garen kontzeptua, alajaina!). Alabaina, gure presoen egoera ez da gehiegi aldatu, baldintza berberetan baitaude: urrun eta gaizki.

Aipagarriena, besteak beste, PNV eta EAren jokabidea da. Presoen gaia oso garrantzitsutzat jo izan dute azkenaldian. Hitzak, hitzak, hitzak... eta non daude ekintzak? Honako hauek dira bi alderdi hauen ekintzak: azaroaren 10ean, esateralco, Diputatuen Kongresuak, PNV eta EA barne, gartzela-politikan 'fiexibilitatea' eskatu zion Gobernuari. Tristea benetan.

Baina, hala ere, ziur gaude honen guztiaren gainetik, gure helburua lortuko dugula. Mikel, Inaxio eta Iñaki, gainontzeko presoak bezalaxe, Euskalerriratzea lortuko dugu; tiranoaren hatzaparretatik askatuko ditugu.

Bukatzeko, eigoibartar guztiak Mikel, Iñaxio eta Ifiakiren atxiloketaren 14. urtemuga gogoratzeko gaur (hilak 27) Elgoibarren egingo diren ekintzetan paxte hartzera animatzen zaituztegu. Eskutitz honekin, Peio Ansola eta elgoibartar errefuxiatuak gogoratu nahi ditugu.

Mikel, Iñaxio eta Iñaki 14 urtez gartzelan!! Euskal presoak Euskal Henira!!

Jo ta ke, irabazi arte!!

Elgoibarko Jarrai

BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon behar dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **lzen-abizenak, NAN** eta **telefono zenbakla.**

## ©11D11111

• **"Herritar bat naiz eta sekulako kuriositatea daukat bolatokiko parkean, `L' forma egiten duen eskilarapean, zenbakiak idatzita dituzten harri landuen inguruan. Hasieran Muguruzatarren arkuarenak izango zirela pentsatu nuen (harri batzuek arku forma dute). Halako batean arkua jarri zuten baina harriek bertan jarraitzen dute. Nongoak dira? Zer egin behar dute horiekin?".**

Batean eta bestean galdetu ondoren, parrokoak eman digu harrien berri: "PatTokiako obrak egin zirenean, atzeko aldean zegoen kanpaiaren horma kendu egin zen. Harriok aipatutako hormarenak dira. Zenbakiak jarri zitzaizkien beste lekuren batean beniro jartzea erabakiko balitz, zein ordenetan egin jakiteko. Egunen batean leku aproposa aurkituz gero, bertan jarriko litzateke. Asmoa, Santa Klarako komentuaren sarreran dagoenaren antzeko zerbait egitea da".



## KEXAK

• Plaza Handian, arratsaldeetan umeekin egoten den emakume talde batek salaketa hau egin nahi du: "arratsaldeko 17:00etatik aurrera herriko kaleak itxita egoten dira trafikoarentzat. Hala ere, **Errosario kalean aparkatuta egoten diren autoak Plazarantz abiatzen direnean sekulako abiaduran egiten dute. Beste egunean gidari batek ume bat harrapatu zuen ia.** Udaltzaingoa pareparean dago baina han ez zegoen inor. Egun batean ezusteko bat izango dugu Errosario kaletik Plazara sartzen diren autoekin".

• Herriko emakume bat kexa honekin etorri zaigu: **"Ermuaranbide kalean, `Errezabal polleria'ren ondoko espaloiak `baden' modukoa dauka autoak garajera sartzeko. Euria egiten duenean (sarritan izaten da), badena edo zulo moduko hori urez betetzen da eta irteerarik ez duenez, estankatuta geratzen da, ur ustel bihurtzen delarik.** Zerbait egin beharko litzatekeela uste dut, handik ehundaka haur pasatzen direlako egunero. Gero, Ertamerikan kolera eta horrelako gaixotasunak sortzen dituzten urak daudela esango dugu, gure inguruan horrelako arriskurik izango ez bagenu bezala".

• Emakume batek haurren igerilekuko uraren tenperatura dela-eta kexatu nahi du: **"ura oso hotza egoten da. Umeak kexatu egiten dira eta beste egunean monitoreak berak onartu zuen ura hotzegia zegoela".**

## BAI, ESAN?





### Amaia Martinei de Buio

Errotatxoko kidea

Domekan, hilak 29, Errotatxo Elkarteak, HIESaz hil diren elgoibartarrak omenduko ditu. Abenduaren lean, berriz, HIESaren Nazioarteko Eguna ospatuko da mundu osoan. Orainеoan ere, Errotatxo Elkarteko kideak kalera irtengo dira informazio banatu eta gaixotasun honen prebentzioaren alde lan egiteko. Honekin batera, HIESa duten gaixoei zuzenean eragiten dien `errejistro'ari buruz berba egin nahi izan dugu **Errotatxoko kidea den Amaia Martfnez de Bujorekin.**

**- Aurten ere HIESaz hil diren elgoibartarrak gogoratuko dituzue. -** Bai. Herritarren inplikazioa oso inportantea da, gaitz honek gizarte guztiari eragiten baitio. Abenduaren lean, Nazioarteko HIESaren Eguna ospatuko dugu eta herritar guztiei izara zuria lazo gorriarekin jartzea eskatu nahi diegu. Arratsalderako, `giza eskubideen alde eta errejistroaren kontra'ko kontzentrazioa izango da eta parte hartzeko deia zabaldu nahi dugu. Jendea solidarioa izatea espero dugu, errejistroarena sekulako bidegabekeria iruditzen baitzaigu.

**- Madrileko Gobernuak HIESa duten gaixoen errejistroa egingo du. Zuek erabat kontra zaudete. Zer da errejistro hau? -** 1999ko urtarrilean, seropositiboak (VIH-1-) diren pertsonen zerrenda bat egiteari ekingo dio Osasun Ministerioko HIESaren aurkako Plan Nazionalak. Onartezina iruditzen zaigu zerrenda horretan horrelako datuak agertzea: izenaren eta bi abizenen bi inizial, probintzia, sexua, lehenengo aldiz positiboa eman zizuneko data (hilabetea eta urtea), jaioteguna, adina,...

**- Beste datu batzuk ere azalduko dira. -** VIHren proba non egin duzun zehaztu beharko da: planifikazio zentroan, drogomenpekotasunen arretarako zentroan, gartzelan, ospitalean, etab. Nola kutsatu zaren ere agertuko da: drogen bidez, praktika homosexualengatik, heterosexualen kasuan bikoteak drogak hartu dituen ala ez zehaztuko da, bikotea bisexuala den, prostituzioan aritutakoa, zure bikotea Saharatik beherako afrilcarra den ala Caribe aldekoa,... zein probintzia eta herritan bizi zaren, VIHren infekzio maila etab.

**- Seropositibo guztiak agertuko al dira? -** Hasieran 1999tik aurrera kutsatutakoak bakarrik, baina orain, VIH+ guztiak sartuko dira. VIHren proban ez baduzu zehazten zure datuak anonimoak izatea nahi duzula, zuzenean errejistroan agertuko zara. Paradojikoa da egunotan Eusko Jaurlaritza Giza Eskubideen 50. urteurrena ospatzen aritzea eta Euskadiko Planaren arduraduna den Zulaika jaunak gure komunitatea errejistroan sartu nahi izatea. Jakin ezazue komunitate autonomoak ez zeudela errejistroan sartzera behartuta. Euskadiko HEESaren Aurkako Elkarte guztiek kontra bageunden ere, Zulaika jaunak errejistroan sartzeko erabakia hartu zuen.



# Ld 5Lntzd

## *elyez eix*

*Hamar urte inguru bete dira Elgoibarko Ongizate sailak Etxez Etxeko Laguntza izeneko programa tnartxan jarri zuenetik. Ordutik, hainbat eta hainbat elgoibartarren etxeetara iritsi da aipaturiko laguntza eta gaur egun konkretuki, 23 familia daude programan sartuta. Guk zerbitzu honi buruz datu gehiago jaso nahi izan ditugu eta zertan oinarritzen den jakiteaz gain, une honetan Elgoibarren hirugarren adineko jendeari begira zein eskaintza dagoen azalduko dugu.*

in zenak esaten duen bezala, Etxez Etxeko Zerbitzuaren bidez, behaa dutenei etxera bertara iristen zaie Iaguntza. Azken batean, Ongizate Sailean esan digutenaren haritik, "etxean bertan, gaixoek bizitza kalitate ahalik eta onena izan dezatela da helburua".

Bereziki hirugarren adinekoi zuzendutako programa den arren, elbarrituek edo bestelako arazoak dituzten pertsonek ere aukera dute eskaera egiteko. Beharra duten herritarrei eta hauen familiei helarazi nahi zaie programa berezi hau, eta kasuan kasuko azterketa egiten da pertsonaren araberalco plangintza antolatzeko.

**Atentzio pertsonala eta garbiketa**

Bi eratakoa izan daiteke Etxez Etxeko Zerbitzua. Alde batetik, Atentzio Pertsonala deitzen dena dago. Kasu honetan, gaixoa garbitu, jantzi eta antzeko laguntza eskaintzen da. "Atentzio edo harreta pertsonalaren bitartez, gaixoa bakarrik bizi bada edo familiakoek ezin badute nahi bezala atenditu, Ongizate Sailaren eskutik laguntza bat iristen zaie". Laguntza hau, kasu bakoitzaren eta beharren arabera neurtzen da, baina gutxienez egunean ordubetekoa eta gehienez hiru ordukoa izaten da. Beste alde batetik, garbiketaren inguruko laguntza aipatu beharko genuke. Honako hau, gaixoaren etxera pertsona bat etxeko lanak eta garbiketa egitera joatean oinarritzen da eta normalki astean hiru orduko zerbitzua da.

Hori bai, Etxez Etxeko Laguntza programan aritzen diren profesionalak ez dira gaixoei medikamentuak eman edo kurak egiteaz arduratzen, "nahiz eta horretarako ere prestaturik badauden, gauza horiek mediku eta erizainen esku uzten ditugu". Esan beharra dago, Elgoibarren Etxez Etxeko Zerbitzuan aritzen diren profesionalak *Kalamua* emakume kooperatibako Iangileak direla eta ikastaroak egiten dituzte euren ezagutza aberastu eta zerbitzua ahalik eta kalitate onenarekin eskaini ahal izateko.

**Konpainia**

Betidanik izan du harrera hona programa honek herritarren artean. Izan ere, Egoitzara joan aurretik dagoen beste aukera bat da eta jende askok eskertzen du. Azken datuen arabera, une honetan 23 familiak jasotzen dute Etxez Etxeko Laguntza, 16 emakumek eta 7 gizonezkok. Horietatik 20 hirugarren adineko pretsonak dira, 2 elbarrituak eta 1 bestelakoen artean sailka dezakegu.

Dena dela, badago arlo bat oraindik landu gabe dagoena, konpainiarena, hain zuzen ere. Familia dexentek luzatu du proposamena, zerbitzu hauen artean gaixoei konpainia egitea ere ongi egongo litzatekeela esanaz. Halere, momentuz ez dago proiekturik, "beste gauza batzuen artean oso garesti aterako litzatekeelako, baina egia da eskaera badagoela eta gero eta jende gehiagok eskertzen du etxera laguntzera joateaz gain, konpainia ere egitea. Ildo honetatik, Gurutze Gorriak egin zuen saiakera bat bolondresek gaixoei konpania eskaintzen zietelarik. Argi dago Etxez Etxeko Zerbitzua laguntza bat dela eta oso mugatua, erosketak egitera ateratzen denarentzat ordubete berehala pasatzen baita".

**Eguneko Zentroa**

Gaur egun Elgoibarren hiru aukera daude hirugarren adinekoei zuzendualc. Alde batetik, oraintxe aipatu berri dugun Etxez Etxeko Zerbitzua dago. Bestetik, aurten Eguneko Zentroa deitzen dena jarri dute martxan. Eguneko Zentroa Jubilatuen Etxean kokatzen da eta hemen gaixoek aukera du-

te goizeko 10:00etatik arratsaldeko 1 8:00ak arte egoteko. "Etxetik zentrora bitarteko garraioaz Gurutze Gorria arduratzen da. Gero, zentroan bertan gaixoak garbitzen dituzte eta goizean zehar hainbat tailer egiten dituzte bazkal ordura arte. Bazkaria bertan ernaten zaie, merienda ere bai... Eta arratsaldeko 18:00etan berriz ere Gurutze Gorrikoek eramaten dituzte gaixoak beraien etxeetara".

Eguneko Zentroa eskainitako laguntza da, batez ere. Hori dela eta, Elgoibarko Udalak hasieratik izan zuen garbi zentroak irekia izan behar zuela. "Zarautzen, esaterako, Alzheimer gaixotasuna dutenentzat espreski antolatutako zentroa dago. Guk ez genuen horrelakorik nahi. Gure asmoa, eskaeraren arabera zentroa poliki definitzen joatea zen. Une honetan Elgoibarko Eguneko Zentroan, 12 lagunentzat tokia dagoen arren, 5 gaixo daude eta guztiek buruko arazoak dituzte. Beraz, gurea dementzia duten gaixoentzat zuzendutako zentroa dela esan daiteke. Etxez Etxeko Zerbitzua jasotzen dutenen artean gaixo fisikoak izaten dira batez ere".



Gastuei dagokionean, kasu bakoitza eta familia bakoitzaren diru sarrerak aztertu behar izaten dira eta horrez gain, Udalak eta Aldundiak dirulaguntzak eskaintzen dituzte.

# ArdRIxa arbdrfe: "are cdxoci kaica eixere erdmatea da"

***Kalamua kooperatibako kidea da sorreratik. Arantxa Narbarte etxez etxeko laguntzailea da azken zazpi urteotan eta bere*** esperienizia ***azal***du ***digu.***



- Etxez etxeko laguntzaileak z te ____

- Teorian bi arlo daude, batetik, atentzio pertsonala eta bestetik, etxeko garbiketa.

- Azken batean, gure lana hori baino askoz zabalagoa delako. Esan nahi dut, denetik egitea tokatzen zaigula askotan. Etxez etxeko laguntzaileak administradoreak gara, gerenteak, konfesoreak, sikologoak, sukaldariak, erizainak... Kasu askotan bankuko paperak daramatzagu, medikuaren errezetak, familiaren eta gaixoaren artean zubia gora, gaixoari konpainia egiten diogu bere gauzak entzunez eta geureak kontatuz... Hitz bitan esateko, gure lana, gaixoei kalea etxera eramatea cla

- Gutxi gorabehera. Kasu batzuetan egunero hiru orduko laguntza eskaintzen dugu, baina oso kasu berezietan izan ohi da. Normalean, ordubete edo ordu eta erdiko kontratuak izaten dira. Gero, kontua da ez dela hain erraza zure ordutegio bete eta berehala alde egitea. Azken batean, pertsonak dira, ez makinak, eta une konkretuetan zure laguntza behar badute, ezin duzu besterik gabe alde egin.

- Dudarik gabe. Pertsonaren araberakoa da baina, nahi eta nahi ez, denbora asko pasatzen duzu gaixoarekin, askotan urteak, eta horrek lotura afektiboak sortzen ditu. Gainera, oso zaila da erabat deskonektatzea eta sarri gogoratzen zara beraiekin. Urte askotako harremana dagoenean, gaixoaren bilakciera osoaren lekukoa zara eta oso gogorra egiten da beraien egoerak txarrera nola egin duen ikustea.

- Hasieran, beraientzat ere oso gogorra da. Azken batean, beraien etxea eta gorputza ezezagun baten ourrean zabaidu behar dute eta hori gogorra egiten zaie. Baina denborarekin, ohitu egiten dira eta zure laguntza asko estirnatzen dute, beraien kontuak entzuteko prest dagoen pertsona zara eta zureak kontatzen dizkiozu. Ez naiz ausartzen esotera familiakoa garenik baina ia-ia. Askotan zu noiz etorriko zain egoten dira.

Bai, etengabean ari gara birziklatzen eta egunean jartzen. Giza errekurtsoei buruzko ikastaroa egin genuen eta momentu honetan cirlo sikologikoa ari gara aztertzen. Hau da, gero eta gehiago ari gara prestatzen giza arloaren gaia eta, bestetik, etxeko lanak egiteaz ere arduratu behar dugunez, oso zaila egiten da garbiketa egiten ari zaren bitartean gaixoari behar duen cfrreta eskaintzea.

r u e ia o _ o zem z e

- Ez dakit ordutegia den kontua edo lehentasunak markatzea. Nik uste dut gaixo hauek etxeko garbiketa egiten laguntzea baino gehiago, entzungo dituen pertsona behar dutela ondocin. Giza arioari eman behar zaio garrantzia.

## • IMHk lanbide heziketako zentro bat sortu du MexIcon

Erreminta Makinaren Institutua, Jaliscon (Mexico) eraikiko den Lanbide Heziketako zentro baten bultzatzailea izan da. Jaliscon eraikiko den ikastetxeak 2.000 metro karratu izango ditu eta fundizio eta makina institutua izango da. Instituaren sorrera, IMH eta Jaliscoko `UrtzaiIe' elkartearen artean sinatutako alcordioaren fruitua da. Elkarte honek Jaliscoko 70 enpresa biltzen ditu. Proiektuaren 3,5 milioi dolarreko (500 milioi pta.) aurrekontua Jaliscoko Gobernuak, Urtzaile elkarteak eta Banco Interamericano de Desarrollo delakoak finantziatuko dute. IMHk Jaliscoko zentroan izango dituen zereginak ondokoak dira: asistentzia teknikoa eskaini, ekipamendu teknikoa aukeratu eta irakaslegoaren eta zentroaren gestoreen prestaketa.

# abu -91or_do 2lla 9d1 [0:mouak Ine haIe nals lapitza

### Gaurko, hilak 27, omenaldia eta manifestazioa antolatu dira

Gaur, 1998ko azaroak 27, Iñaki Jaio, Ifiaxio Triondo eta Mikel Alberdi preso elgoibartarrek 14 urte bete dituzte kartzelan. Urteurren hau gogoratzeko, Elgoibarko Amnistiaren Aldeko Batzordeek hiru elgoibartar hauei eskainitako omenaldia antolatu dute gaur iluntzerako. Arratsaldeko 20:00etan izango da omenaldi-ekitaldia Plaza Handian. Ondoren, manifestazioa izango da heniko kaleetan zehar.

Amnistiaren Aldeko Batzordeek bidalitako prentsa oharrean adierazten den bezala, "1984tik aurrera, gure presoak kartzelatik kartzelara ibili dituzte Espainiako erreinuan zehar. 1987an, beste 500 presorekin batera, sakabanatu egin zituzten, eta







espainiar gobernuak damua edo heriotza eskaini zien. Ordutik aurrera Estatuko hainbat kartzela esterminatzaile ezagutu dituzte. 14 urte lau hormen inguruan, zerbait esan nahi eta ezin, zerbait egin nahi eta ezin, senide eta lagunengandik urrun". Hiru presoen 14. urteurrena delaeta argi laga nahi dute "gure preso politikoak ez direla inongo negoziazio prozesutan trukaketarako merkantzia. Beste presoek bezala, oinarrizko eskubideak dituzte eta espainiar gobernuari horiek errespetatzea dagokio". Amnistiaren Aldeko Batzordeen ustez, "Lizarrako akordioak onartzen duen bezala, gatazka honen oinarria politikoa denez, gure presoekiko jarrera amnistia osoarena izan behar da".

# Saivia Zeziliako **ekitaldiak oso** amakastaisuak izan **dira**

Aurreko asteburuan, herriko hainbat musika ekartek Santa Zezilia, musikoen zaindariaren eguna ospatu zuten. Beheko argazkiak dira horien lekuko. Lehenengo argazkian, Musikeskolako ikasleek ostiralean Herriko Antzokian eman zuten kontzertuaren ostean egin zen ziurtagiri banaketa ikus dezakegu. 55 bat ikaslek oinarrizko ikasketak amaitu dituztela ziurtatzen duten agiria jaso zuten. Bigarren argazkia zapatukoa da, Parrokiko abesbatzak San Partolome elizan eman zuen kontzertukoa. Beranduago, udaletxeko arkupeetan, Itxaropena abesbatzak bere saioa eskaini zuen (hirugarren argazkian). Azkenik, domeka eguerdian, Pedro Regil bandakideari 50 urtez Bandan jarduteagatik omenaldi beroa egin zitzaion Herriko Antzokian. Laugarren argazkian, Gorka Regil, Jose Antonio Osoro zuzendaria, Pedro Regil eta Gillermo Garate alkatea. Gainontzean, aipagarria da ekitaldi guzietan herritarren partehartzea benetan handia izan zela. Bandaren kontzertuan, esaterako, Herriko Antzokia lepo zegoen eta azken piezaren `bis'a ere egin behar izan zuten.



# doijak *Zilgavo* a•posteko proposamem agitgo 111 onslonneEn rizzango **den salmenta** juldelleel

Sigma, "interes espekulatzaileen esku" geratzeko arriskua dagoela ohartarazi du HBk

Gillermo Garate alkateak jakitera eman digunez, astelehenean, hilak 30, Sigmako lurren salmenta judizialerako eskaintza ekonomikoak aurkezteko azken eguna izango da. Salmenta berehalakoan egingo da Donostian. "Udalak 300 milioi inguruko erosketa-proposamena egingo du, Estarta Rectificadoras eta beste bi enpresarekin batera. Horietatik, Udalak 6 milioi jarriko lituzke. Honekin batera, memoria bat aurkeztu dugu. Bertan, gure nahia zein den zehazten dugu: Sigmako pabilioietan dauden 100 langileak bertan geratzea eta lurren erabilera industriarako izatea". Alkatearen esanetan, "Retegi Industria Sailburuarekin eta Aldundiko ordezkariekin hitz egin dugu Sigmaren erabilera industriala errespeta dadin. Gure proposamen ekonomikoa besteek aurkezten dutenaren parekoa edo antzerakoa bada, Jaurlaritzak eta Aldundiak gure proiektuarekin bat egitea espero dugu, eurei kobratzea dagokien zorraren partea proposamenari gehituko litzaiokeelarik". Ildo beretik, joan den asteartean HBko Pello Mendizabalek eta Juan Marcosek prentsaurrekoan azaldu zutenez, "azaroaren 3ko udal bozeramaleen batzordean alkatearen ahotik jakin genuen Sigma saltzeko asmoa zegoela. Alkateak berak eskatuta, sahnentaren data atzeratu egin zen Udalak proposamen bat aurkezteko astia izan zezan. Era berean, beste eskaintza ekonomiko batzuk bazeudela adierazi zigun, horietako bat 360 milioikoa". HBko zinegotzien esanetan, "ez da batere logikoa Sigmako akreedoreak (Eusko Jaurlaritza, Fogasa, Seguritate Soziala eta Aldundia) urte askotan ados ez jartzea, eta bat-batean Sigmako lurrak saltzea erabakitzea. 3.500 milioiko zorra zuten kobratzeko, eta orain 36.000 m2ko lur saila 360 milioi pta.ren truke saltzeko prest daude. Gainera, ez dauka zentzurik plenoan Albitxuri gure industrial izendatzea eta pare bat egun beranduago, alkatea Sigma salduko den notiziarekin etortzea". HBren ustez, ibaiaren mozketa egiteko erabili behar ziren 450 milioi pta.k Sigma erosteko izan daitezke, "baina alkateak esaten du diru hori ezin dela ikutu". Gai honi buruz alkateak zera adierazi digu: "orain dela 7 hilabete esan zidaten Jaurlaritzatik Sigmarekin ez zegoela ezer egiterik, ahazteko kontua. Elgoibarren lur industriala premiazkoa denez, beste alternatiba batzuk bilatzeari ekin nion, Albitxuri, alegia". HBko kideen ustez, "salmenta operazio honen helburua, Sigma interes pribatu eta espekulatiboen esku lagatzea da. Sigma eskuratzen duten enpresek sekulako negozioa egingo dute".






## Ikastolako ikasle, irakasle eta gurasoak Otarren izan ziren egun pasa

Pasa den domekan, Ikastolako 215 ikasle, irakasle eta gurasok Kalamuara irteeran parte hartzeko izena eman zuten. Baina domeka goizean eguraldi benetan kaxkarra zegoela ikusita, bertan behera geratu zen Kalamuara joateko asmoa. Horrela, bada, Madarixara autoz joan eta handik Otarreraino pasiara ederra eman zuten. 215 lagunek izena emanda bazuten ere, askok etxean geratzea erabaki zuten eguraldi txarra zegoela ikusita, eta, azkenean, 65 lagun inguru animatu ziren.

## • Gabonzahar egunean, Harilzek antolatutako bazkarirako txartelak salgai

Abenduaren 26an Gabonzahar feria izango da. Azken urteothn bezala, Haritz Dantzari Taldeak `Plazara Dantzara' ikuskizuna prestatu du an̄atsalderako. Aurten, Haritz Dantzari Taldeak 25. urteurrena betetzen duela-eta, arratsaldeko dantza saioa girotzeko asmoz, herri bazkaria izango da ikastolako frontoian. Bazkari txartelak 1.750 pta.n salgai egongo dira abenduaren letik 18ra bitartean Pitxintxu dendan, Kaia, Usoa eta Jai-Alai tabernetan eta Olaizaga kiroldegian.

## Mercadeco Elkartasunaren denda abenduaren lean irekiko da

Abenduaren lean, Parrokiako Misio Taldeak Hirugarren Munduko produktuen salmentarako denda irekiko du. *Mercadeco eta Coprodeli* Gobernuz Kanpoko Erakundeekin lankidetzan, Unzueta familiak Errosario 3an lagatako lokalean kokatuko da aipatutako denda. Abenduaren letik urtarrilaren 5era bitartean hainbat produktu erosi ahal izango dira: kakaoa, kafea, artisaulanak,... Horrelako dendei esker Hirugarren Munduko produktoreei bidezko prezioak ordaintzen zaizkie, lurraldeotan beharrezko proiektuak finantziatu ahal izateko.

# Be11Birezkoak al dira be:12Mak Elg .1)D'larren?



**MARIA LINERO**
**42 urte, etxekoandrea**

Aurrerabidea den guztia ondo iruditzen zait. Zenbat eta etxe berri gehiago eraiki, hobe. Nire ustez, gerta daiteke gainera, asko eraikitzen badira, etxe berrien prezioa jaistea.



**ERROKA HASTRILLEJO**
**28** urte, **espezialista**

Baietz uste dot. Elgoibarren etxe zahar asko dao eta garestixak dia. Horregatik, hobe da etxe berri eta garesti bat erostia zaharra eta garestia dan bat baino.



**NICOLAS PRIETO**
**74 urte, jubilatua**

Bai, noski, Gazte asko dago ezkondu ezin direnak etxerik ez dutelako. Etxe zaharrak bota eta berriak eraiki behar dira. Gainera, herria politagoa geratuko da.



**DELIA SANTOS**
**28 urte, etxekoandrea**

**Nire ustez, lehenago ere** badago etxe nahikoa Elgoibarren. Egin beharko luketena da jende gaztearentzako laguntzak eman etxeak eros ditzaten.



**EUGENIO ANDONEGI**
**66 urte, jubilatua**

Etxe asko dao hutsik. Baina zaharrak egonda berrixak erosten badia, dirua daon seinale da. Mala inguruan etxiak ein biharrian, hobe parke ederra eitxia.



**DOLORES BERISTAIN**
**43 urte, etxekoandrea**

Horrenbeste etxe berri ein eta danak saltzen badia, horrek esan nahi du eskaeria dauala. Preziva merketuko dan ala ez, kalidadian eta beste gauza askoren araberakua da.


HERRI-GAIN
ERRETEGIA
San Pedro auzoa 4
s° 943 74 30 40 ELGOIBAR








*tw
Unutisa deitu gabe bertakook segituan konponduko dizugu igogailua
G 943 20 35 15
G ABERIAK 943 20 35 15
Bista Eder, 11 (sotanoa)
• 20600 EIBAR

# Negua bero-bero

Epeletan

Udazken nahiko epela izan dugu orain artean. Dena dela, joan den astean, termometroek 3 gradu markatzen zutela ikusita, bat baino gehiago atera zen kalera berokia, bufanda eta eskularruak jantzita. Kontuak horrela, konturatu orduko, hotza ate eta leihoetatik sartu zaigu eta horren aurrean, etxe barrua ahalik eta baldintza onenetan izatea komeni da. Berogailuei buruzko gehigarri honetan, hainbat aholku ernango ditugu gaur egun merkatuan dauden aukerak aztertuz, eta etxea epel-epel izonik, ahalik eto gutxien gastatazeko pistak emango ditugu.




Juaristi
irozte ia






aluminioa
Aluminioa
PVCa
ARMAIRU
OTRATUAK
NATEAK
CARIMAK

Santa Ana, 16 Elgoibar • Tel: 943 74 29 94

# LEIHOAK ISOLATZEN DITUGU







## Hailea, hota, hautsa efa zaraten kontra

**GLASHER ®**

**ALTZAIRU 1NOXIDABLEZKO BURLETEAK dira, leihoa isteaz bat, tentsatu eta zirrikitu guztiak estaltzen dituztenak, haizea, hotza, hautsa eta zarata eragotz1z.**

Berogailuetan aurrezpena • ipintzeko azkarra eta garbia Behin-betiko iraupena

# INPERMEABILIZANTEEN ATALEKO SAILA





## Soluzioa, ziku-zikuan

**Hezetasun arazoak terrazetan, estalkietan, sotoetan, garajeetan, hormetan, etab.**
**Transitableak, elastikoak, transparenteak, dekoratiboak.**

**gias controll**
**Isolamenduak**

**Informazio gehiago:**
Tel. 943 74 30 94 902 11 75 1 b
**Ubitarte, 7 behea • Elgoibar**

# MOid OSId deategu guixiko?



Iegua eta h za iristearekin hatera, berogailua jartzen ;hasten gara. Askotan, etxea edo bulegoa oso hotza egoten dira eta, ondorioz, bero2.ailua denbora asko eduktzen dugu piztuta. Horrek, lotikoki, gastua suposatzen du eta komeni da jakitea zein pauso jarraitu beharkth itenituzke ahalik eta gehien aprobetxatu eta auffezteko, gehiegizko gasturik egin gabe.

Esate haterako. berogailu goxo eta eroso batez gozattt ahal izateko, lokalaren tenperatura kontrolatzea aholkatzen da.eta ahal den neurrian, tenperatura ez dadila izan ez beroegia ez hotzegia. Nola kontrola dezakegu tenperatura? Termostatoa erabiliz. Termostatoren bidez, lokaleko edo eixeko tenperatura erabiltzaiieak aurrez markatutako graduetan mantemzen da. Horrela. tenperatura gehiegtzkoa denean, berogailuak automatikoki uzten dio funtzionatzeari eta, aldiz. gehiegi jaisten bada, be..rriz pizien da. Orokon¯ean, batez besteko tenperatura 20 gradukoa izatea aholkatzen cla etxean gauden bit.artean, eta gainontzean. egunean zehar, 15 gradu ingurukoa. Aholkatutako tenperaturatik gorako gradu bakoitzeko kontsumoa %6-8a igotzen da. Hori bai, termostatoa leku Pkinetan jarri behar da eta ez aire korronteak dituden tokietan edo radiadoreen ondoan.





SORALUZE
AROZTEGIA



"Rotura"dun aluminioa
WENT modeloko poliuretanoa
PVCa
Bainuko manparak
Ateak

FABRIKA:
Olasope, 66- ELGOIBAR
Tel/Faxa: 943 74 21 03

ERAKUSKETA:
Santa Ana, 3 Tel: 943 74 36 34 ELGOIBAR
Goiko Kale, 16 Te1: 943 B1 02 74 AZPEITIA

# Berogallua aukerat eko gida

Berogailua aukeratzeko orduan hainbat faktore komeni da hartzea kontuan. Esate baterako, kontsumoa, instalakuntzaren kostoa, kontaminatzen duen ala ez, erregaia, zenbat pertsona bizi diren etxean eta abar. Horien arabera sailkatu ditugu eskura dauden berogailuak.



## Erregaiak

- **Gas naturala**

Oso erosoa da, ez baikara arduratu behar ez gordetzeaz ez eta erosteaz ere. Elektrikoa baino merkeagoa da baina propanoa eta C Gasoleoa baino garestiagoa.

- **Propanoa**

Botila txikiak, handiak, deposito finkoa... hainbat aukera eskaintzen ditu gordetzerako orduan. Gas naturalak baino bero-ahalmen handiagoa du eta merkeagoa da.

**C Gasoleoa**

Erregaien artean merkeena da baina ez du aukerarik ematen kozinatzeko, beraz, beste erregairen batekin konbinatu behar da. Gordetzerako orduan arazoak sortzen dira.

**Erregai solidoak (egurra, ikatza...)**

Lekua behar da gordetzeko eta egunero garbitu behar da zikina. Kostua, mendian hartu edo erosi, asko aldatzen da baina normalean ez da oso merkea izaten.

**./ Energia elektrikoa**

Erregairik garestiena da instalakuntza indibidual edo zentralizatuetan.

## Erabillzaileak

**Unitarioak**

Radiadore elektrikoak, gas-estufak eta abar sartuko genituzke atal honetan. Arriskutsuak dira eta babestuak egon behar dute, bestela erre egiten dute. Radiadore infragorriek pertsonetatik edo erretzeko arriskua duen edozein objektutatik bi metrora egon behar dute.

**Indibidualak**

Instalakuntza honen bidez, kaldera batek etxebizitza osoa berotzen du. Berogailu unitarioek baino potentzia gutxiagorekin etxe osoa berotzen dute. Kaldera mistoek, alde batetik, berogailua ekoizten dute eta bestetik, ur beroa.

**1 Zentralak**

Kaldera zentralen bitartez, eraikuntza bateko etxebizitza guztietara iristen da berogailua eta ur beroa. Gaur egun askoz gehiago jartzen dira indibidualak, baina zentralak merkeago ateratzen dira bai mantenu bai eta kontsumo aldetik ere.

P. Muguruza, 30 behea
Tel: 943 74 32 38/70 03 89

Zugan pentsatzen egiten dugu lan. Urteetako esperientziak profesional bihurtu gaitu zure arazoei soluzioa topatuz.

Amaiera bikaina eta itxidura hermetikoa garantizatzen dizugu primerako materialetan.

Leihoak, ateak, terrazako itxidurak, manparak, bainuko manparak, bulegoetako banaketak, etab... instalatzen ditugu.

eska ezazu aurrekontua inolako konpromezurik gabe.

## Radiadoreak

**Radiadoreak**
Gehien jartzen direnak dira eta burnizkoak, txapazkoak edo aluminiozkoak izan daitezke. Burnizkoek denbora asko behar dute berotzeko eta garestiak dira. Txapazkoak merkeagoak dira eta aluminiozkoak estetikoak dira, beroa oso ondo banatzen dute eta nahiko azkar berotzen dira.

**Lur radianteak**
Etxebizitzako lur azpian jartzen dira berogailuaren hodiak. Lur guztiak ematen du beroa baina tenperatura ez da 29 gradu baino altuagoa izan behar. Instalakuntza aldetik, radiadore normala baino garestiagoa da baina eguzki panela, bero bonbak eta antzekoak erabilita, mantenua asko merketzen da. Egongelek altuera handia izan behar dute instalakuntza egiterakoan lurraren altura 6-8 cm igotzen baita.

**/ Klimatizatzaileak**
Aire beroa ematen dute eta industria, etxe, erresidentzia edo bulegoetan jartzen dira. Oso zarata gutxi ateratzen dute.


*Lur radiadorearen marrazki bat.*

# IsolarneRcluak

Isolamendu termikoaren bidez, kanpoko hormak babestu egiten dira beroak ez dezan ihes egin etxetik kanpora. Honen bidez, energia aurrezten da (ez baita hainbeste bero galtzen), eraikuntza babesten da kondentsazio arriskua gutxituz eta "horma hotza"ren sentsazioa gutxitzen da.

Isolamendu termikoa egiteko gehien erabiltzen diren materialak artile minerala, beiraren fibra, poliestirenoa, poliuretanoa eta ureaformola dira. Gainera, hauetako material batzuen bidez, isolamendu termikoaz gain, eraikuntzaren isolamendu akustikoa ere lortzen da. Edozein kasutan, profesionalengana jo aholku bila eta gehien komeni zaizun materiala, usain txarrak eta gas toxikoak sortzen ez dituzten materialak aukeratu.

Isolamenduei buruz hitz egiterakoan, leihoak ere izan behar ditugu kontuan. Izan ere, askotan beroak leihoen zirrikituetatik ihes egiten du. Lehenik eta behin, leihoak egoera onean dauden aztertu behar da, hau da, ea egurraren kalitatea ona den, sitsak janda dagoen... Leihoak oraindik aprobetxatzeko daudela ikusten hada, ertzak burleteekin estaltzen dira. Burleteek zirrikitu guztiak tapatzen dituzte etxea haize, hotz, hauts eta zarataren aurrean isolatuz.


**Juan Carios**
**Iturgintza, gasa eta berogailuak**
Urasandi. 59-61 behea. Te1:943 74 34 87


ITURGINTZA
J AV I BEROGAILUAK
Iturria tantaka duzula...
e 608 77 29 32
Erretxindi 1-4 B



# Leihoak ondo hita

Berogailuaren gastua ez da berotu nahi den espazioaren. eguraldiaren edo lortu nahi den tenperaturaren araberakoa bakarrik. Garrantzi handia du, baita ere, lortzen den bero horretatik zenbat alferrik galtzen den. Horregatik dira garrantzitsuak leihoak. Hona hemen, leihoak jartzekotan bazaude jakin beharreko zenbait gauza.

Leihoei dagokienean, gaur egun merkatuan hainbat material eta aukera daude. Dena dela, *Soraluze Leihoak* dendan esan digutenez, "etxea zein tokitan dagoen kokatua kontuan izan behar da materiala aukeratzerako orduan. Ez da berdina leku eguzkitsua edo umela izatea".

- **PVC**

Material noblea da eta ez du transmititzen hezetasuna. Oso ondo ixten da hermetikoki.

*et* "Rotura"ko **aluminioa**

Aluminiozko leihoak oso onak dira hotzaz eta beroaz babesten baitute. Gehien jartzen **den** materiala da. Merezi du kalitate ona erosi eta zertxobait gehiago ordaintzea, garantia baita. Azken batean, merkea dena garesti ateratzen da epe luzera.

**Alumioa-egurra**

Aluminioa eta egurra konbinatzen dira leiho hauetan. Politenak dira koloreetan jar daitezkeelako eta jendeari atentzio gehien deitzen diona da. Kalitate onekoa jartzea komeni da, ostantzean, arazoak ematen ditu.

**Poliuretanoa**

Etorkizuneko materiala da. Dagoen onena. Ez du ez hotzik ez berorik pasatzen uzten eta edozein tokitan jartzeko da aproposa. Garesti xamarra da baina merezi du ordaintzea. Ez da gastu bezala ulertu behar, inbertsio bezala baizik.

**LODOSO LEIHOAK**

• PVCa
• Aluminio termikoa
• Poliuretanoa
• Aluminioa - egurra





GURE ERRONKA, KALITATEA eta PREZIOA

Ermuaranbide, 16 Tel/Faxa: 943 74 34 90

PRD INFORMATIKA
Buztintxulo, 35 behea • DoNoviA
Tel: 943 29 39 34/Faxa: 943 29 38 33
Azpilgoeta kalea, 19 • MENDARO
Tel: 929 41 96 33



## Etxera eramaten dugu garantia osoarekin

## Stock-ean dauzkagunak amaitu bitarteko eskaintza

### BASIC

Semitorre
Pentium II ATX LX/BX AGP
Intel 266-450 MHZ
3.5" 1.44Mb
32MB DIMM SDRAM
3,4 GB ULTRA DMA
S3 TRIO AGP 4MB
CD-Rom 36x
Digital 14" 0.28
Windows-95 PS/2
Net EASY MOUSE PS/2, alfonbrilla
Soinu tarjeta Sound Blaster 16 bits
240 Wko bozgorailuak

| | |
|---|---|
| PENTIUM 266 CELERON | 101.902 Pta. |
| PENTIUM II 300 CELERON | 104.662 Pta. |
| PENTIUM II 266 | 116.674 Pta. |
| PENTIUM II 300 | 120.376 Pta. |
| PENTIUM II 333 | 121.577 Pta. |
| PENTIUM II 350** | 132.274 Pta. |
| PENTIUM II 400" | 163.474 Pta. |

* BX plaka eta 64 MB

### MEDIUM

Semitorre ATX
Pentium II ATX BX/LX AGP 100 MHZ
Intel 266-450 MHZ
3.5" 1.44Mb
64MB DIMM SDRAM
4,3GB ULTRA DMA
S3 TRIO AGP 4MB
CD-Rom 36x PIONNER
Digital 15" 0.28 GOLDSTAR 55i
Windows-95/98 PS/2 KEYTRONIC
Net MOUSE Pro Genius PS/2, alfonbrilla
Soinu tarjeta Sound Blaster 16 bits
240 Wko bozgorailuak

| | |
|---|---|
| PENTIUM II 266 CELERON | 128.422 Pta. |
| PENTIUM II 300 CELERON | 131.182 Pta. |
| PENTIUM II 266 | 143.194 Pta. |
| PENTIUM II 300 | 146.896 Pta. |
| PENTIUM II 333 | 148.097 Pta. |
| PENTIUM II 350** | 157.594 Pta. |
| PENTIUM II 400** | 177.994 Pta. |

BX plaka

### FILIVRFICE

Semitorre ATX
Pentium II ATX BX/LX AGP ASUS 100 MHZ
Intel 266-450 MHZ
3.5" 1.44Mb
64MB DIMM SDRAM
4,3GB ULTRA DMA
Intel 740 AGP 8MB
CD-Rom 36x PIONNER
Digital 15" 0.28 GOLDSTAR 55i
Windows-95/98 PS/2, KEYTRONIC
Net MOUSE Pro Genius PS/2, alfonbrilla
Soinu tarjeta Sound Blaster 64 bits
240 Wko bozgorailuak

| | |
|---|---|
| PENTIUM II 266 CELERON | 160.636 Pta. |
| PENTIUM II 300 CELERON | 148,624 Pta. |
| PENTIUM II 266 | 160.636 Pta. |
| PENTIUM II 300 | 164.338 Pta. |
| PENTIUM II 333 | 165.539 Pta. |
| PENTIUM II 350** | 175.036 Pta. |
| PENTIUM II 400** | 195.436 Pta. |

* BX plaka

### PACK 19.900 PTA



WINDOWS 98,
ANTIVIRUS
PANDA eVa
WORKS 4.0

### PRESORAK

| | | | |
|---|---|---|---|
| HP 690 | 26.394 Pta. | OKI OKIJET 910 color | 17.500 Pta. |
| HP 710 | 36.240 Pta. | LASER OKI 4m | 47.200 Pta. |
| HP 720 | 41.508 Pta. | LASER OKI 4W+ | 43.500 Pta. |
| EPSON 700 | 45.748 Pta. | CANON BJC-250 | 16.560 Pta. |
| EPSON 440 | 25.194 Pta. | canon BJC-4300 | 20.880 Pta. |
| EPSON 640 | 32.994 Pta. | | |

%16 B.E.Z z-dzi prezioan sartzen

# [1 111 1 121N · IV KONTZEZIO AZOKA






Pastelak, Sagardoa, Lore lehorrak, Arraiak, Behiak, Zaldiak, Hegaztiak, Esku lanak,






7'4dee/44, Saft~, .do/te lelofvta.4, fit~, E~, ga1~, 5161 tou444,

lleepto~, exdritlateel, Welayeairitia let~, 5~, tu,c;t114z4, (99‘ wtte~ca-,

eatt edea ea.~4,

leP ‘~1.4, (99‘ aitteuuti~,

514« €~4,

-41-0144,




ABEND A[1 5, 11,A UNBA A GOIZEKO 9:00etatik 14:00etara, FRONTOI INGURUAN

# Os@unean adituak

## GAIA:

wiL

## Bizkarreko mina

statu espainolean, hamarretik zortzi lagunek bizkarreko edo gerriko mina izango dute bizitzan zehar. Bizkarreko mina gaitz oso arriskutsua ez izan arren, gaixoaren bizi-kalitateari ikaragarri eragiten dio. Izan ere, laneko baja hartzen duten lau kasuren artetik bat, bizkarreko minaren inguruko gaitzengatik izaten da. Haurren artean ere oso arrunta da bizkarreko mina: haurren %50ak bizkarrezurreko arazoak izaten ditu.

Minik ez edukitzeko onena zaintzea da.

**Kontuan izan beharrekoak:**

**1- Prebentzioa:**

- Ondo eseritzeko ohitura izan.
- Ariketa fisikoa egin.

**2- Tratamendua:**

Botikak: antiinflamatorioak, kalmanteak eta giharreak erlajatzeko bo tikak.

Ebaketa neurorreflejoterapikoak.

Zirujia.

Badira zenbait tratamendu bizkarreko minarentzat onak direnak, nahiz eta onespen zientifikorik izan ez:

**Er** Mina dagoen tokian hotza edo be roa aplikatzea.

▪ Aditu batek emandako maisaia.

Ez da erraza ezagutzea zergatik sor tzen den bizkarreko edo gerriko mina. Izan ere, %85 kasutan ez dago mina ren jatorria jakiterik.

## MASAJISTAK

**Ezkurra**
.............................. Santa Ana, 14 • Tel: **943 74 08 96**
....................................................... Egunero: 15:00-20:00

**Victoria lraegi**
P Migel Urruzuno, 31 • Tel: **943 74 07 70**
.............................. Egunero: 10:30-13:00 / 15:00-19:00

## MEDIKUNTZA ALTERNATIBOA

**Kemen** Belardenda (Medikuntza natura, F. de Bach, masaia, makrobetika, yoga)
............................ San Batolome, 25 • Tel: **943 74 40 31**
................................ Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

**Surya** Belardenda (Yoga, reiki eta masaia ikastaro eta tratamenduak)
....................... San Frantzisko, 23 • Tel: **943 74 25 34**
................................ Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

## OPTIKAK

**ikus** (Optiko-optometrista)
....................... San Bartolome, 10 • Tel: **943 74 37 34**
................................ Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

**Uzuri** (optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)
....................... San Frantzisko, 21 • Tel: **943 74 03 59**
................................ Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

## ORTOPEDIAK

**Itziar Sarasketa**
......................... San Bartolome, 9 • Tel: **943 74 35 62**
................................ Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

## PODOLOGOAK

**Ibiltzen**
.................................. Ubitarte, 11 • Tel: **943 74 36 56**
.............................. Egunero: 10:00-13:30 / 15:00-19:30

**hiaki Rivero**
....................... San Bartolome, 28 • Tel: **943 74 32 90**
............................ Ostegunak: 9:00-12:00 / 15:00-19:30

## PSIKOLOGOAK

**Nare psikologoak** (Helduak, haurrak eta bikoteak)
....................... isasi 17, 1-B Eibar • Tel: **943 20 05 95**

**rGida honetan agertu nahi baduzu, deitu 943 74 37 04ral**

Osasunari buruzko kezkaren bat argitu nahi baduzu, deitu BARRENeko 943 74 41 12ra

# Sulowlgo Egij Wihn pliMa lartzen
# ˥VEZPUE En Ilaka lizriallkaar

## Domeka gauean (hilak 29) irabazlea nor den jakingo da

Domekan, gaueko 21:00etan Kultur Etxean izango den sari banaketan emango da ezagutzera Elgoibarko 8. Nazioarteko Xake Txapelketaren irabazlearen izena. Ordura arte, xake jokalarien gorabeherak gertutik jarraitzearekin korformatu beharko dute zaletu guztiek. Joan den zapatuan, hilak 21, eman zitzaion hasiera txapelketari eta egunero, arratsaldeko 16:00etatik aurrera jokatzen dira partidak Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Xakeak ez du beste kirol batzuek besteko jendetzarik erakartzen, baina aste osoan ez da ikuslerik falta izan. 10 partehartzaile ari dira nor baino nor, errusiar, bulgariar, holandar, portugaldar, espainiar eta euskaldunak tarteko. Partidak erritmo olinpikoan jokatzen dira. Asteazkenera bitarteko emaitzak kontuan izanda, txapelduna bost jokalari hauen artetik aterako da: Ubilava (Georgia), Korneev (Errusia), Van der WieI (Holanda), Izeta (Euskadi) eta Georgiev (Bulgaria).



*Korneev errusiarra eta Mario G6nzez euskalduna xake jokoan kontzentratuta.*

**8. edizioa**

Duela 8 urte antolatu zen estreinakoz Elgoibarko Nazioarteko Xake Txapelketa. Joan den zapatuan, hilak 21, Kultur Etxeko hitzaldi gelan aurtengo edizioaren aurkezpena egin zen. Tomas Conde Zubi-Ondo Elkarteko kidea, Gillermo Garate alkatea, Migel Angel Muela Euskadiko Xake Federazioko presidentea eta txapelketan parte hartzen ari diren jokalariak izan ziren bertan. Alkateak ongi-etorria eman zien jokalariei, "badira zenbait jokalari sarritan etorri izan direnak Elgoibarko txapelketa honetan. Asko etxekoak direla esan daiteke. Ubilava georgiarra, esaterako, gure aspaldiko laguna, `historikoa' da Elgoibarren. Beste askok estrenaikoz hartuko dute parte baina, ziur naiz, denek dutela maila handia bai jokalari eta bai pertsona moduan". Ondoren, Migel Angel Muela Federazioko presidenteak jokalarien aurkezpena egin zuen. Honen esanetan, "txapelketak 1 lko maila dauka. Honek esan nahi du jokalari guztiak direla maila handikoak. 2.500 punturen bueltan daude denak, eta horien artean bi maisu handi ditugu: Korneev eta Ubilava, azken hau oso ezaguna Elgoibarren". Hauez gain, Mario G6mez eta Elgoibarko txapelketako irabazlea izan den Felix Izeta euskaldunen partehartzea azpimarratu zuen. "Izeta borrokatzeko gogoarekin dator, azken aldian puntu dexente galdu baititu. Aipagarria da, baita ere, Francisco Vallejo espainiarra txapelketako gazteena dela eta etorkizun handiko jokalaria izan daiteke".

## ESK@LARTEKO KIROLAK

**FA EINT A** Azaroak 28 7 ardunaldia

SASKIBALOIA (Herri Eskolan)

■ **Benjamin mulilak** ■
**10:00** Herri Eskala A- lkastola B
11:00 Pilar A- Mendaro A
**11:30** Pilar B Herri Eskola B
**12:30** Ikastola A lkastola C

• **Benjamin neskak** ■
**10:30** Ikastola A- Pilar A
**12:00** lkastola **B** - Ikastola

ESKUBALOIA (Ikastolan)

■ **Alebin mutilak** •
**12:00** Pilar A- Deba Urdinak

■ **Alebin neskak** •
**9:00** Ikastola A Ikastola C
**9:45** Ikastala B- Pilar A
**10:30** Jauja D Pilar B
**11:15** Deba Horiak - Jauja E

ESKUBALOIA (Kiroldegian)

• **Alebin mutilak** ■
**9:00** Herri Eskola - Pilar B
**9:45** Mendaro B- Ikastola A
**10:30** Jauja B Deba Gorriak
**11:15** Jauja A Deba Berdeak
**12:00** Ikastola B Mendaro A

FUTBOLA (Herri Eskolan)

■ **Infantil mutilak** ■
**11:00** Pilar B • Deba
**11:45** Pilar A- Insti A
**12:30** lkastola - Insti B

■ **Inlantil neskak** ■
**11:00** Ikastola A - lnsti
**10:45** Mutriku Pilar B
**11:30** lkastola C- Ikastola E
**12:15** Ikastala B- Pilar A

## ESKOLARTEK@ KIRALAK

**EMAITZAK** (Azaroak 21, 6 jardunaldia)

SASKIBALOIA

**E1 Benjamin mutilak** ■
Ikastala B **30** - Mendaro A 0
Herri Eskola A **22** - lkastola A 2
lkastola C **38** - Herri Eskola B 0

**la Benjamin neskak** ■
Ikastola B **2-** Pilar B **12**
Pilar A Ikastola C10

ESKUBALOIA

111 **Alebin** mutilak ■
lastala C1 Pilar B 0
Mendaro B 6 - Jauja **B 3**
Mendaro A 10 - Jauja A 10
Ikastola B **8-** Pilar A **2**
Deba Urdinak **4-** Deba Berdeak 6

■ **Alebin neskak** ■
Ikastola A **3** Pilar A **2**
Jauja D **13** - Jauja **E 2**
Ikastola C 1 Pilar B 1
Herri Eskala 11 - lkastola A **8**
Ikastola B 10 Deba Horiak **2**

FUTBOLA

• **Infanlii mutilak** •
Ikastala **3-** Pilar B 1
Insti A **12** - Deba 0
Insti B **6** - Pilar A **2**

• Infantil neskak ■
Mutriku 0 -Ikastola A **3**
Ikastola B 1 **Insti 4**
Ikastola C - Pilar B 11
Ikastola D **3-** Pilar A **3**

# Ibai Kiro tallwmiude taldea, Eusliladiko Umpialidufij

Dasa den hilean, Ibai Kirol Eikarteko ta- r ekwondo talde batek bigarren postua eskuratu zuen Gipuzkoako Taekwondo Txapelketa absolutoan. Ibai Kirol Elkarteko taekwondo irakaslea den Josune Altuna eibartarrak urrezko domina lortu zuen emakumezkoen kategorian. Gizonekoen mailan, 31 urtetik 40ra bitartekoan, Francisco Blanco izan zen txapelduna. Azkenik, 15 urtetik 17ra bitartekoen mailan, Haritz Villenak brontzezko domina lortu zuen.

Bestalde, aipatu behar da Josune Altuna irakaslea Euskadiko taekwondo txapelduna ere badela. Emakume honek gerriko beltza `3 dan' delakoa dauka eta entrenatzaile nazional titulua duen emakume bakarra da Gipuzkoan. Eibartar hau duela 4 urte hasi zen Ibai Kirol Elkarteko irakasle lanean.



*Ibai Kirol Elkarteko Francisco Blanco eta Josune Altuna taekwondoko ariketa bat egiten.*

## • 26 lagun ari dira parte harlien Tenis Txapelketan

Kirol Patronatuak antolatutako Tenis txapelketa azaroaren *7an* hasi zen. Partehartzaileak 26 dira, 6 taldetan banatuta.

• Partiduak asteburuetan < jokatzen dira IMHko tenis pistan. Hala ere, eguraldi txarrarengatik atzeratzen diren partiduak as- 0) te barruan izaten dira.

Txapelketa liga erara daCO go egituratua eta abenduaren 6an Iehen fasea amaituko da. Horrela bada, talde bakoitzeko irabazleek eta bigarren sailkatu direnen arteko bi onenek abenduaren 12an izango diren finalaurdeCC nak jokatuko dituzte. Abenduaren 13an finalerdiak izango dira eta abenduaren 19an, finala.

## Mintxeta Taldeko korrikalarial( irungo krosean izan dira

Joan den domekan, Mintxeta Atletismo Taldeko alebin, infantil eta kadete mailako korrikalariak Irungo eskoIarteko krosean izan ziren. Goiz osoan zehar izotza egin bazuen ere, elgoibartarrek ederki eutsi zioten goiari. Partehartzaileen emaitzak ondorengoak dira:

- Jon Mekolalde 32. postua (Kad. mut.)
- Julen Merino 19. postua (Inf. mut.)
- Alaitz Merino 18. postua (Inf. nes.)
  Aitor Arrillaga 10. postua (Aleb. mut.)
  Nerea Zubiaurre 8. postua (Aleb. nes.)



## EMAITZAK

**Futbola**

Bermeo 2 - Haundi 1
Elgoibar 3 - Tolosaldea 0 (1. erreg.)
Urola 2- Pedruska 0 (2. erreg.)
Elgoibar 1- Getxo 4 (L. N. jub.)
Amaraberri 6- Elgoibar 1 (1. jub.)
Elgoibare- Lagun Onak **4** (Kad.)
Elgoibar 1- Real Unian 1 (Inf.)
Elgoibar 8 - Aloñamendi **0 (Neskak)**

**Futbitoa**

Aide Globun 0 - Alzkorak Mendibil 7
PSK 3 - Los Herminios 2
Berrogei Duro 4- Los Peñaskos 4
Kunta Kinte 7- Menisco 4
Lojantzi **6 -S.** Braga **1**

**Areto futbola**

Zur Ta Lur Elg. 1 - Lauburu 1 (1. matta)
Zur Ta Lur Elg. 4- Intxaurrondo 3 **(Aulo.)**

**Eskubalola**

Tecnomeca EIg.16-Bidasoa 23 (Kad. mul.)
Pneumax Elg. 22 - Bidasoa 28 (Jub. mut.)
Urntetako 24 - IMH Elg. 21 (Senior mut.)
Basauri 7 - Pagoaga Elg. 11 (Kad. nes.)
Basauri 16 - Unceta Elg. 23 **(Jub. nes.)**
**1MS Elg. 19 - Pulpo 15 (Senior nes.)**

**Idarraga Kafeak 2. saria**

**HAUNDIko jokalarl erregularrena 98/99**

| JOKALARIA | PUNTUAK |
|---|---|
| 1- Eneko | 21 |
| 2- Beitia | 18 |
| 3- Aitor Trebitto | 17 |
| 4- Iker Leonardo | 15 |
| 5- Txasio | 13 |
| 6- Elkoro | 12 |
| 7- G. Leonardo | 10 |
| 8- Muguruza | 8 |
| 9- Madina | 7 |
| 10- Diaz | 7 |
| 11- Igor | 7 |
| 12- Loren | 5 |
| 13- Caro | 5 |
| 14- G. Lazarobaster | 2 |

## AGENDA

**Futbitoa,** Kiroldecnan

**Igandea, 29**
**10:00** Lojantzi - Aizkorak Mendibil
11:00 S. Braga - Kunta Kinte
12:00 Menisco - Berrogei Duro

**Futbola,** Mintxetan

Larunbata, 28
17:00 Haundi - Calanorra
**Igandea, 29**
12:00 Elgoibar- S. D. Eibar **(Inf.)**
16:30 Elgoibar - Burumendi (1. **jub.)**

# Todebfiez Gaizaiu nagrileE a2a Bagnfua defi kritikoa abenduaran 200 klltida2n Mange 5'91

## `Por el infante difunto' laburmetraia eta `Las nubes pasajeras' filmea emango dira

Datorren ostegunerako, abenduak 3, Ongarri Zine Klubekoek saio berezia prestatu dute. Ez ohiko bi gonbidatu izango dira zine klubeko saio bikoitza aurkezteko. Batetik, 'Por el infante difunto' laburmetraiaren egilea den Tinieblas GonzIllez zinegile gasteiztarra izango da, azken aldian zine munduan sona hartzen ari dena. Beste gonbidatua Begoña del Teso zine-kritiko ezaguna da. Azken honek, Tinieblas zinegilearen laguntzaz, 'Por el infante difunto' Iaburmetraiaren xehetasunak azalduko ditu eta ondoren, Aki Kaurismaki zinegile finI andi arraren 'Las nubes pasajeras' pelikula aurkeztuko du. Tinieblas Gonthlez oso pertsonaia `popularra' bihurtu da azken aldian, 'Por el infante difunto' izenburuko laburmetraiak kritikaren sarietako bat irabazi baitzuen Cannes-eko zinemaldian (munduko garrantzitsuenetariko bat}. Honez gain, bere itxurak eta bizitzari buruz duen ikuspegi xelebre xamarrak bere 'popularitatea' areagotzen lagunclu dute. Bestetik, Begoria del Tesok, zineari buruko aditua izateaz gain, Diario Vasco egunkariko kritikak idazten ditu.



Ezkerrean, Tinieblas Gonztllez zinegile gasteiztarra. Eskuman, berriz, Begoña del Teso zine-kritiko ezaguna.

Zine klubean emango den bigarren filmea, Aki Kaurismaki zinegile finlandiarraren 'Nubes pasajeras' da. Finlandiarra Donostian izan zen duela gutxi `Donostia Kultura' elkarteak gonbidatuta. Zine klubean ikusi ahal izango den pelikula, Kaurismaki-k egin duen azkena da. Gehienontzat Finlandiako zinea ezezaguna bada ere, Europako zine zuzendarien artean "onenetarikoa" dela aitortu dute zebait adituk.

---

# Mikel Legorburu: *"Kondharian* ikuskizunian estreinakoz ein dot aktore lana"



*28 urteko injineru tekniko honek, bere lanbidearekin zerikusirik ez duen afizioa du. Txikitatik hasi zen euskal dantzan eta gaur egun, Haritz Dantzari Taldeko aurreskulari ezagunenetariko bat da. Juan Antonio Urbeltz-en 'Alakiketan' eta Zortzika'n parte hartu izan du Haritz Dantzari Taldeko beste kideekin batera. Oraingoan, Urbeltzen azken produkzioan, `Kondhariani izenburukoan, paper garrantzitsua dauka Mikelek. Bihar, hilak 28, Azkoitiko Baztartxo Antzokian izango dira gaueko 22:30etik aurrera. Epe laburrera Elgoibarren emanaldirik izango ez denez, Azkoitiko antzokika ikuslegoaren artean herritar asko egongo direla komentatuz eman diogu hasiera elkarrizketari.*

- `*Kondharian'* ikuskizunak pauso kualitatibo handia suposatzen du aurrekoekin konparatuz. Zer da `Kondharian'? - Dantza eta musika tradizionalari buruzko ikuskizun bat da, Orain arte Juan Antonion produkzio guztietan, "Alakiketan', "Zortziko' eta hasierakua izan zan 'Irradaka' ikuskizunetan, eurek eitxen zaban dana. Oin, berriz, eszenografa profesional baten esku laga dabe; Arriagan eta beste teatro batzuetan obra asko eruan izan ditxun emakumia da.

- Zazpi ipuinez osaturik daga, ezta? - Bai. AIde horretatik, aurreko produkzioekin konparauta, hitzak mugatu eitxen zaitxu. Zazpi kontakizun dia, Koldo Amestoy-k egokitxutakuak *eta* dramatizazio edo teatralizazio haundixa daukate, gestikulazio askokin,... Bestalde, efektu nahiko ikusgarrixak dauzka, argi joko politxa, musika aldetik ere ikusgarrixa da,...

Zure pertsonaia 'Itzaia' da (idi zaina). Bi pertsonaia diaz nagusixak: Itzaia eta irulea. Ni itznia naiz eta zazpi ipuinetan agertzen naiz, eta alde horretatik nere pertsonajiak badaka bere pisua.

- Estreinakoz, iazko ekainean taularatu zen ikuskizuna. Zuretzat ere estrainaldia izan zen aktore moduan. - Estrenua Arriaga teatruart izan zan eta azkenengo bi astietararte guk geuk ere ez gendun montajia osotasunean ikusi. Ikustera jun zan jendiak gustau jakuela esan zian eta hori norberari ere gustatzen jako entzutia. Gutaz aparte, aktore profesionalak ere badaude eta horrek suposatzen du zu ere erabat inplikatu bihar zerala. Egixa esateko, hasieran ez nitzan oso komodo sentitzen aktore bezata. Lelengo ipunian, dantza konteporaneua eitxen daben hiru neskakin sagar dantza bat eitxen dot eta traje sensual batzukin agertzen diaz. Gure artian badao maitasun harreman moduko bat eta hasieran kostau ein jatan, Azken finian, papela sinistu bihar dozu.

- Hainbeste plazatan dantza egin eta gero, eskenatokietara ohituta egongo zara, ezta? - Lan bat eitxen zaudenian errespontasbilitate bat dakazu eta errespetua beti sortzen dau, plazan egon edo eskenatoki batian.

G A Z T A R O A





# Arima Beltza

## BLUES ELGOIBARTARRA EUSKARAZ

Astean bizpahiru aldiz Fundizioko lokal batean elkartzen dira Arima Beltza tdidelko lau kideak. Lokal txukuna dute, hormak era guzlietako posterrez beteta, siloi bat, musika ekipo txiki bat... Halere, guk ikusi genuenak ez zuen zerikusirik beraiek hasieran hartu zuten lokalareRin. Esan digutenez, erabat hondatuta zegoen eta egunak behar izan zituzten hango zikin eta hautsak kendu eta behar bezala egokitzeko. Elgoibartar hauek San Bartolome jaielan jo zuten estreinakoz herritarren aurrean eta abenduaren I9an izango dute hurrengo Rontzertua Bergaran.



**- Hasteko, esaigu [redacted] zue zeinek osatzen [redacted] duz el- [redacted] tz**

- Lander Trinidad (kitarra), go Araujo (baxua), Aitor Badiola (kitanra eta ahotsa) eta lon Gurrutxagak (bateria eta ahotsa).

**- Nola sortu zen taldea?**

- Aitorrek komentau zian (Ion Gurrutxaga ari da herbetan) musika talde bat sortu nahi zabala eta ia animatzen nitzan. Triniri eta kuadrilako bati (Txurru) esan eta laurak hasi ginan. Baina, denboriakin Txurruk laga in zaban, berari beste musika kiase bat gustatzen jako eta. Bere partez Iñigo sartu zan eta gaur egun laurak gaude.

**- Lokala berehala lortu al zenuten?**

- Ez. Lelengo Aitor eta bixok bere etxian ibiltzen ginan entsaiatzen, Baina haterixia erosi nabanian, esbera orrixa hete genduan UdaleIXian lokala lortzeko. Hala ere, rantzuna jaso aurretik, kuadrilako batzuek lokala zakela eta lako asmuakin zabizela esan in eta euren partez sartu ginan Fundizioko lokal honetan.

**- Ekipoa erostearena nola izan da?**

- Denbora mordo bat asteburuetan nerigastau gabe ibili nitzan, ze nere helburua baterixia erostia zan.

**- Arima Beltza. Nola atera zen izena?**

- Asko kostau jakun. Taldia oin dala urtebete pasa sortu zan eta izena aurtengo udan jarri diogu. Hor ibili ginan izen desberdinekin bueltaka. Gau batian Arima Beltza okurritxu, gustau eta hola geratu zan.

**- Aurten izan duzue debuta, ezta?**

- Bai, abuztuan. Lelengua Soraluzeko Gaztetxian eta bigarrena Elgoibarko jaixetan. Egixa esan, ez dake zerikusirikan entsaiuek eta kontzertuek. Kontzertua ondo urtetezeko entsainetan %I 00a eman bihar dozu, ze kontzertuan beti gitxio ematen da. Gainera, jendian aurrian jartziak beti errespetua sartzen dau. Hala ere, lelengo abestixak kantau eta gero oso gustura sentitzen zera eta azkenian ez dozu amaitzerikan nahi.

**- Blues musika jotzen duzue.**

- Bai. Oinarri xan blues musikia da baina beste estilo batzuekin nahasten dou, rockarekin, esate baterako.

**- Euskaraz ab[redacted]esten duzue. Euskal Herrian ba al da bes,**

[redacted]

Usten dou ezetz. Donostian badao talde bat, *Lau Behi* eta haiek ere blues antzekuak itxen dabe. Beste talde batzuek ere jotzen dabe musika mota hau baina erderaz. Ondiokan lau abesti bakarrik ditxugu guriak, hini letriakin eta bat instrumentala, bestiak bertsivak dia eta inglesez abesten ditxugu.

**- Maketa noizko?**

- Ez dakagu proiekturik ondiokan. Egixa da gustauko litzaigukeela egunen baten maketia etaratzia baina ondiokan ez gera ezertan hasi. Lelengo abesti gehixo in nahi ditxugu.

[redacted]

- Bai. Esan ziguten ia nahi genduan eta guk segiduan esan genduan baietz. Kontzertuak eman cta ezagutarazteko aukera oso ona da.

[redacted]

- Badauzkagu batzuk zehazteko,baina fijua, abenduan I 9xan ,Bergarakua da momentuz.







1998-XI-27

## INTERESEKO TELEFONOAK

**OSASUNA**

Anbu lategia:
Larrialdiak . . 943 461111
Txanda hartzeko 943 743354
Planning-a ......... 943 742950
Alkenenko Anenimoak . 943740385
D.YA (anbulantzia) . 943 464622
Gurutze Gorria 943 743864
Mendaroko Ospitalea 943 756264
Odol Emaileak 943 743936

**GARRAIOAK**

Eusko Trenbideak. . . 943 740442
PESA (Eibar) .. 902 10 12 10
Taxi geltokia . 943 740898

**UDALA**

Euskara Zerbitzua... 943 744366
Udal Kirol Patronatua. 943 744415
Kultura Zerbitzua 943 742158
Mendaroko Udala... 943 756100
Ongizate zerbitzua .. 943741008
Udaletxea ........... 943 741050
Udaltzaingoa ....... 943 741394

**BESTELAKOAK**

Elgoibarko Izarra 943 741626
Ki rold egia ........... 943 744415
Kontsume Bulegoa 943 743088
liburutegia ......... 943 743525
Musika Eskola 943 742145
M intxeta ........... 943 744315
Parrokia ............. 943 740842
Postetxea ........... 943 741547
Gaztetxea ........... 943 743572

iug

**ADINEKOEN ETXEAK**

San Lazaro Egoitza. 943 740296
Zaharrtokia . 943 740526

emia

Haur Eskola ... 943 74 21 41
HHI (EPA) . 943 74 08 80
Herri Eskola ... 943 74 08 79
1.1V1 H. ............. 943 74 41 32
Herri Institutua
Arreiturre ...... 943 74 02 67
Ezenarro (Meka).. 943 74 44 80
I kastola ........... 943 74 44 41
Rilar Ikastetxea „ . 943 74 13 31

**KOMUNIKABIDEAK**

BARREN ........... 943 74 41 12
El Oiano Vasco . 943 74 40 73
El Correo Espatol.. 943 74 10 82
Egin .................. 943 10 84 21
Zazei irratia .. 943 74 34 74

# AGENDA

## ostirala

**18:30 ODOL ATERALDIA**
P. M. Urruzuno San

**19:00 GAZTE ASANBLADAREN BILERA**
Gaztetxean

**20:00 HERRIKO PRESOEI OMENALDIA**
Ondoren, manifestazioa
Plaza Handian
Antolatzailea: Amnistiaren Aldeko Batzordeak

**22:15 ZINE KLUBA**
"Affliction"

## 2 iarun ata

**19:30-22:15 ZINEA**
"**El** hombre que susurraba a los caballos"

**22:00 PRESOEN ALDEKO KONTZERTUA**
`Morbos' eta "Skandalu'
Gaztetxean
Antolatzailea: Amnistiaren Aldeko Batzordeak

## igandea

11**:00 HAURRENTZAKO XAKE TXAPELKETA**
Kultur Etxean
Antolatzailea: Eskola Kirola programa

**13:00 HIESaz HIL DIRENEI 011ENALDIA**
Ondoren, giza katea eta kontzentrazioa
Plaza Handian
Antolatzailea: Errotatxo

**16:30 TXOTXONGILOAK**
"**Lur** gainean nonbait"
Taldea: Italiako 'El Picaporte'
Herriko Antzokian

**19:30-22:15 ZINEA**
"**El** hombre que susurraba a los caballos"

**21:00 NAZIOARTEKO 8. XAKE TXAPELKETAko SARI BANAKETA**
Kultur Etxean

## 30 aste e ena

**22:15 ZINEA**
"**El** hombre que susurraba a los caballos"

## 1 asteartea

**19:30 HIESaren NAZIOARTEKO EGUNEKO KONTZENTRAZIOA**
San Frantzisko iturriaren aurrean
Antolatzailea: Errotatxo

## 2 osteguna

15:00 **HITZALDIA**
Gaia: Alzheimer gaitza
Kultur Etxean
Antolatzailea: AFAGI

## osteguna

**22:15 ZINE KLUBA**
"Por el infante difunto" eta "Las nubes pasajeras"
Antolatzailea:
Ongarri Zine Kluba

## 4 ostirala

**22:15 ZINEA**
"**El** show de Truman"

111 111 ■ 111 III • • • 11 ■ • S1 zza mwm

# 11 NE A



**Zuzendaria: Robert Redford.**
**Antzezleak: Robert Redford, Krinstin Scott Thomas, Scarlett Johansson.**

### Elhombreque susurraba a los caballos

13 urteko neska batek istripua izan du zaldi gainean. Ondorioz, krisi psikologikoa sufrituko dute bai neskak eta baita zaldiak ere. Neskak ez du zaldia berriz ikusterik nahi, eta zaldia, animali arriskutsua bihurtu da. Neskaren amak, dia sendatzeko esperantzan, zaldiei hitz egiten dien gizon batengana eramango du zaldia, bere alaba krisitik ateratzeko modu bakarra izango delakoan.

### • Eskolarteko xake txapelketa

Eskola Kirolaren barruan, domekan, hilak 29, xake txapelketa izango da eskoIarteko kiroletan dabiltzan haunrentzat. Izan ere, egunotan Elgoibarko VIII. Nazioarteko Xake txapelketa ari da jokatzen eta horren bueltan antolatu da benjamin, alebin eta infantil mailetako haurrentzako torneo hau. Txapelketa Kultur Etxeko hitzaldi gelan izango da goizeko 11:00etatik aurrera.

### • Txotxongilo saioa haurrentzat

Udal Kultura Sailak antolatuta, domekan, hilak 29, Tolosako Nazioarteko 16. Txotxongilo Jaialdian parte hartu duen Italiako 'El Picaporte' txotxongllo taldearen emanaldia ikusteko aukera izango da Herriko Antzokian. `Lur gainean nonbait' da Ianaren izenburua eta bi iratxo dira protagonistak. Egun osoan eztabaidan eta borrokatzen pasatzen dute eta herrikoek, egoeraz kezkatuta, konponbidea topa dezan eskatzen diote beste iratxo bati. Bietatik indartsuena nor den erakusteko, munduko gauzarik zoragarriena bilatu beharko dute, baina iratxoak ez die argitzen zer den. Ikuskizuna arratsaldeko 16:30ean hasiko da.

### • HIESaz hil direnei omenaldia eta HIESaren Nazioarteko Eguna

Errotatxo Drogomenpekotasunen Elkarteak omenaldia egingo die HIESaz hil diren elgoibartar guztiei domekan, hilak 29. Eguerdiko 13:00etan hasiko da ekitaldia Plaza Handian, Haritz Dantzari Taldea, bertsolariak, txalaparta, txistulariak eta Bereziki taldearen laguntzaz. Ondoren, urtero bezala, giza-katea eta kontzentrazioa egingo dira.

Bestalde, abenduaren 1 ean, HIESaren Nazioarteko Eguna ospatuko da mundu osoan. Goizeko 11:00etatik 13:00ak arte eta arratsaldeko 17:00etatik 19:00etara bitartean, Errotatxoko kideek informazioa emateko mahaiak jarriko dituzte San Frantzisko iturriaren aurrean. Iluntzeko 19:30ean, `Errejistroari ez-Giza eskubideen alde' lemapean kontzentrazioa egingo dute leku berean.

### • Gabonetako menuak prestatzen ikasteko sukaldaritza ikastaroa

Haizea Emakume Taldeak sukaldaritza ikastaroa antolatu du abenduaren 14tik 18ra bitartean. Gabonak gainean daudenez, Gabonetako menuak eta postreak prestatzean oinarrituko da ikastaroa. Klaseak arratsaldeko 17:00etatik 19:30era bitartean izango dira Pedro Muguruza ikastetxeko beheko solairuan. Bide-Gain modulo okupazionaletako sukaldaritza irakasleak dira ikastaroa emango dutenak. Parte hartu nahi duten guztiek 943 74 29 65 zenbakira dei dezakete abenduaren 10a baino lehen. Ikastarokideen kopurua mugatua izango denez, lehenbailehen komeni da izena ematea.

### • Alzheimer gaixotasunari buruzko hitzaldia

Alzheimer gaitza duten senitartekoen Gipuzkoako Elkarteak (AFAGI) antolatuta, abenduaren 2an, asteazkena, gaitz honi buruzko hitzaldia izango da Kultur Etxean arratsaldeko 15:00etan. Mediku eta psikologo batek gaitz honen inguruko xehetasun eta argibideak eskainilco ditu. Elkarte honek emandako datuen arabera, Gipuzkoan 7.000 lagunek dute gaitz hau. Gaixotasun degeneratiboa da, burmuinari eragiten diona. Gaixotasuna areagotzen den heinean, memoriak, pentsamenduak eta jokabideak txarrera egiten dute. Interesa duten herritar guztiei dago zuzendua hitzaldia.

**GARRI kluba**



## El infante difunto (lahumetraia)

## Ondoren, Nubes pasajeras

Senar-emazte baten inguruko gorabeherak kontatzen dizkigu pelikula honek. Emaztea jatetxe bateko 'maitre'a da eta senarrak, berriz, tranbia bat gidatzen du. Gattzak okertzen hasten dira, biak lanik gabe geratzen baitira. Baina egun batean, emazteak dirua lortzen du jatetxe bat irekitzeko. `Lana' izena jartzen dio jatetxeari eta menuak prezio merkeetan eskaintzen ditu.

**Zuzendaria: Aki Kaurismaki**
**Antzezleak: Kari Vfifinfinen, Kati Outinen, Elma Salo.**

721fiLlIE

**FAR MAZ1AK**

| | Egunez | Gauez |
|---|---|---|
| **28** | Yudego | Yudego |
| **29** | Yudego | Yudego |
| **30** | Zabaleta | Zabaleta |
| **1** | Etxeberria | Etxeberria |
| **2** | Escala | Escala |
| **3** | Bidasolo | Bidasolo |
| **4** | Etxeberria | Etxeberria (Santa Ana kalean) |

**ESCALA:** Rekalde, 1 Soraluze. Tel: 75 **16** 38
**ANDUAGA:** Mendarozabal, 1 Garagarza. Tel: 75 61 42
**ZABALETA:** Kalebarren, 9 Soraluze. Tel: 75 13 84

**OKINDEGIA**
18 igandea Fotero

# Salerosketak

## Lana

• ESKAINTZA+

Emakume heldua behar da interna etxeko ardura eramateko. tr 943 74 01 75 (ostegun eta ostiraletan arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara)

+ Mutil arduratsua behar da zenbait lan egiteko. e 970 672 515

+ Igeltseroa behar da esperientziarekin, sa 943 12 08 63
909 71 05 91

+ Neska behar da etxeko Ianak egin eta ume bat zaintzeko. Ahal bada, euskalduna. T 943 74 45 87

• ESKAERA+

+ Erizantzan diplamatutako neska euskalduna eskaintzen da pertsona gaixoak edo edadetuak zaintzeko, etxean edo/eta ospitalean. Egunez, nahiz gauez. e 943 74 27 78 (hziar)

• Ozenki irakurtzen dut eta gaixoak eta laguntza behar duten pertsonak zaintzen ditut. Badakit euskaraz. w 74 23 89 (M. Jesus)

• Erizain Laguntzaile tituloduna eskaintzen da zaharrak edo gaixoak zaintzeko. e 943 74 16 71

• Mutila eskaintzen da tabernan lan egiteka. Esperientziarekin. rs. 943 74 25 66 (Aitor)

+ Administrari eta komertzio ikasketak dituen neska lanerako eskaintzen da. tr 943 75 50 45

• Neska eskaintzen da etxeko lanak egin eta umeak edo zaharrak zaintzeko w 943 75 50 45

+ Bi gazte eskaintzen dira propaganda banatzeko ge 943 74 13 07 (arratsaldez)

+ 38 urteko neska eskaintzen da gaixoak zaintzeko, bai ospitalean baita etxean gauez ere. ir 943 74 31 75 ( Carmen, goizez).

## Garajeak

+ Marradun garajea saltzen edo alokatzen da Pista Beltzean. Prezioa hitz egitekotan. w 943 74 23 13 (eguerdian. Inma)

• Marradun garajea saltzen dut Leku-Ederren. a 943 74 43 98 (gauez)

+ Garajea alokatzen da San Roke 5ean. te 943 74 11 61

## Etxebizitzak

+ Etxe berria saltzen da Itziarren. Altzariekin eta ganbararekin, e 943 19 92 96

+ Etxea salgai Santa Ana kalean. Bigarren pisua igogailuarekin eta ganbararekin. te 943 74 03 83/ 74 18 34

+ Santa Ana kalean etxean saltzen da. Ganbara eta igogailuarekin. tr 943 74 01 93 / 74 26 89

+ Etxea hartuko nuke alokairuan, altzaririk gabe ahal bada. tt 943 74 09 44

+ Pisua saltzen dut Urasandin, Kanpora ematen du eta eguzkitsua da. it• 943 74 29 52 (20:00-22:30)

• Pisua alokatzen da Ubitarten. tr 943 74 03 41

Apartamentua saltzen da Ezuaray-n. tr 944 95 05 37 (Chara edo Javi)

0 Etxea saltzen da Santa Ana kalean. 2. pisua, ganbararekin eta igogailuarekin. e 943 74 03 83 it 943 74 18 34

♦ San Bartolome 2an, 4. solairuan dagoen 25 m2ko teilatupeko lokala salgai. 1,5 milioi pta. tr 943 20 30 83 (Arantxa)

+ Logelak ditut alokatzeko. Urasandi kalean. tr 943 74 03 93 (20:00etatik aurrera)

## Bestelakoak

• Taxi geltokia traspasatzen da. tr 907 44 55 66.

+ Domekan Donostiako Maratoira joango diren elgoibartar guztiak animatu nahi ditut. Aupa neska-mutilak, laster zaudete-eta 42. Kilometroan!

+ IrakasIe batek beste irakasle edo langile batzuekin pisua alokatuko luke Bilbon. te 94 68 424 69 (Nerea. 19:00-21:00)

• Caritas-ek kotxe kapota dauka emateko. w 943 74 15 09

• Ehiza txakurra galdu nuen igandean Pedro Muguruza kalean.13eltza da. Norbaitek topatu badu, dei dezala 943 74 17 87 zenbakira.

+ Gris koloreko katu pertsa aurkitu dut. Muturra eta oinak beltzak ditu. Galdu duenak dei dezala 943 74 00 33 telefonora (Emiliana).

+ Txakur txiki bat hartuko nuke. le 943 74 46 14

+ SALDU•

• Wolkswagen Golf GTI 18(10 zuria salgai. I992koa. Egoera onean eta ITVa pasa berri, w 943 81 62 20

• Taberna saltzen da Mendaron. Bezeroak ditu, eguneko menua, pintxoak, erretegia... tr 943 75 62 85

+ Lancia Delta Integrale SS AF autoa saltzen da. 124.000 km ditu. Merkea. a 943 75 62 43

Mendaron bezero asko dituen taberna saltzen edo alokatzen da. w 943 75 50 16

• Amazona Aestiva loroa saltzen da. 97 anilla. Arra. tr 929 43 81 54 (Xabier)

• Lokal komertziala saltzen da Urasandi 5ean. 27 m2 ditu. tr 943 75 12 76

+ Larousse enziklopedia eta bi supletnento saltzen ditut. tr 943 19 50 98 (Esther. 20:00-21:00)

• Super Nintendo kontsola saltzen da. Bi mando eta sei jolas ditu. e 943 74 22 75 (Ihigo)

• Bodyboard bat saltzen da, Wave Rebel. Aletak Rip Curl eta 2x3ko traje motza. Merke. tr 943 74 38 76 (Ivan)

+ EROSI•

+ Trikitixa bat erosiko nuke. 3 edo 4 ahotsetakoa. a 943 75 61 83

## Agurrak

• Zorionak Josefa Garitagoitiari gaur urteak bete dituelako. Alaba eta biloba Ainara eta Urkoren partez musu haundi bat.

• Zorionak Amaia Astigarragari Melany eta Kevin.en partez.

• Zorionak Asier Pireseri hilaren 26an urteak bete zituelako. Lagun lonen partez.

+ Zorionak Mari Juli Konde andereñoari Ikastolako 2B gelako guztien partez.



+ Zorionak Juan Antonio Martini azaroaren 29an urteak beteko dituelako. Guraso, arreba eta ilobaren partez.



• Zorionak Oscar Martini gaur urteak bete dituelako. Guraso eta anaiaren partez.



• Zorionak Haritz Iriondori abenduaren 4an 12 urte beteko dituelako. Arreba Iratxe eta miliaren partez.

• Zorionak Unai Urzainki• ri az.aroaren 2 ean 4 urte bete zituelako. Gurasoen partez.



+ Zorionak Amaiari hilaren 29an 5 urte beteko dituelako. Guraso eta ahizpa Olaizen partez.



• Zorionak Milari hilaren 26an urteak bete zituelako. Seme-alaba eta Acosta-Hervias familiaren partez,



+ Zorionak Jose Luis Arrizabalagari hilaren 25ean 85 urte bete zituelako. Etxekoen partez.



• Superzorionak Amaia Conderi hilaren 20an 5 urte bete zitueIako. Gurasoen eta ahizpa Kristinaren partez.



+ Zorionak go Zubiaurreri hilaren 23an 8 urte bete zituelako. Gurasoen partez.



+ Zorionak zapatero guapoenari Melany, Kevin, arreba eta gurasoen partez.



• Zorionak Melany Arrizabalagari aitatxo-amatxo, Kevin, osaba eta attona-amonen partez.

B O W N D C A R 1 S MA
HEM1TSUB S H I
AKDSÑOJEYUGE
HRMSBS8OFDCY
U J S A I CI V U V 4 OP
HYUNDAILOY NR
MUTMWLT1ROFU
1 T VSELOYHVOL
CK1EVOLVOL RE
RBTJUPY1VIBX TT
A G O I M E R C E D E S
OTBEJRYFRMEL
P ACCENTKER I U

# Aurkitu itzazu sei AUTO MARKA desberdin...

## Ez jarraitu begira, zatoz Aldibi-ra!

Aldibi

Aldibi autoak, S.A. · MERCEDES Izar auloak, S. L. · VOLVO Auto Suecia · GALLOPER Almovil, S.L. · HYUNDAI Musakola autoak, S.L. · MITSUBISHI MOTORS ALdikar autoak, S.L.

ALDIBI AUTOAK, S.A. • Olaso kalea, 23 • ELGOIBAR • Tel.: 943 74 20 37 / Faxa: 943 74 35 24

ALDIBI AUTOAK, S.A. • Zigarrola, 1 • ARRASATE • Tel.: 943 71 20 02 / Faxa: 943 79 65 65

# AUTO-ESKOLA

## Auto, autobus, kamioi eta motorrentzako gida-baimenak




San Frantzisko, 43 - Tel: 943 74 27 20 - ELGOIBAR     Zezenbide,1-1 - Tel: 943 20 34 45 EIBAR

# txOtxongiloak



ITALIAKO "ELPICAPORTE" TALDEAREN ESKUTIK

## 'Lur gainean nonbait' antzezlana



HERRIKO ANTZOKIAN

Azaroak 29, igandea

Arratsaideko 16 30ean

Kultura saila